

IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

Ikastegia

252 - Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea. Gipuzkoako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GENFER20 - Erizaintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

26464 - Prácticum II

ECTS kredituak: 8

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Kanpoko praktika akademikoak hezkuntza jardun bat da, ikasleek egina eta unibertsitateak gainbegiratu, hezkuntza akademikoan jaso eta berenganatutako jakintzak aplikatzeko eta osatzeko aukera eskaintzen diena ikasleei eta erizain profesiorako prestaketan baliatuko dituzten gaitasunak bereganatzen lagunduko diena, hartara lan merkatura arinago iritsi eta zein bere ekimenerako gaitasuna sustatuz.

Onartua izateko baldintzak:

Irakasgai hau egiteko nahitaezkoa da bigarren mailako Practicum I irakasgaia gaindituta izatea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Profesioan jardun aurreko praktiketan txandakako formazio kliniko independentea eskuratzen da osasun gune, ospitale eta bestelako sorospen guneetan, eta gaitasunen azken ebaluazioa izaten dute; praktika horien bidez, lanbidearen balioak, sorospenerako komunikazio gaitasunak, arrazonamendu klinikoa, gestio klinikoa eta epai kritikoa eskuratzeko aukera dauka ikasleak, praktikak erizaintzako ezagutza, trebetasunak eta jarrerak bertatik bertara ezagutzeko bidea emango baitio; guztia tituluko helburu orokorrekin, gaitasunekin eta gaiekin bat etorrita.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Kanpoko praktika hauetan hainbat eragilek hartzen dute parte. Lehenengo eta behin, ikasleak, ikaslea bera baita ezagutza eskuratzearen erantzule, eta parte hartze aktiboa izan behar baitu gaitasunen garapenean eta etengabeko prestakuntzaren prozesuan.

UPV/EHU ikasleen kanpoko praktikei buruz indarrean dagoen araudiari jarraituz, hauek dira praktika horietako beste eragile batzuk:

Instruktorea (zentroko tutorea)

Praktiketako guneko erizain bat da, unibertsitatearekin bat etorrita prestakuntza jarduerak antolatzeaz ardurako dena.

Unibertsitateko tutorea (irakasle-tutorea)

Kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipena egiten du eta ari laguntza ematen dio.

Irakasgai honetako metodologiak oinarri ditu metodo zientifikoa arazoak konpontzeko eta hausnarketa, horien bidez ikasleak, apurka-apurka, esku hartzeko eskemak eta estrategiak gara ditzan eta etorkizunean, erizaintzan jarduten duenean, bere jardunak gogoeta izan dezan oinarri.

Praktiketan ikasleek banan banako arreta izaten dute. Begiraleak eta tutoreak, ikaslearekin batera, helburuak zehazten dituzten kontuan hartuta zehaztutako gaitasunak.

Irakasgai hau erabat presentziala da bat etorrita 1837/2008 Errege Dekretuarekin, horren arabera, Erizaintzako Gradu ikasleek 2.300 ordu bete behar baitituzte praktika asistentzialetan.

Practicuma egin bitartean, gutxien dela hiru tutoretza egiten dira:

1. tutoretza: praktikak hasten direnean. Ikasketa prozesua zehazten da.

2. tutoretza: practicumaren erdi aldera egiten da. Ikasleak izandako bilakaera aztertzen da, bai eta lortutako gaitasunak ere, eta horren arabera berbideratu egiten dira praktikak.

3. tutoretza: Praktikak amaitzerakoan, prozesua ebaluatzen da, hau da: ikasleak emaitzak eta hasieran zehaztutako gaitasunak zein heinean eskuratu dituen.

METODOLOGIA

Irakaskuntza-metodologia.-

- Irakasle-tutoreak eta erizain begiraleak ikaslea orientatzen dute ikasturtean zehar. Horrez gainera, praktiketako ikastetxean, erizaintzako taldeak bere gain hartzen du erizaintzako funtzioak in situ irakasteko eginkizuna.

- Ikasleak bere gain hartu beharko du bere ikaskuntzaren ardura, eta aurrez aipatutako Practicumaren Tutoretza Prozesuan ezarritako autoebaluazioak egin beharko ditu.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a									

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Praktika zikloan zehar ikasketa emaitzen garapena % 80

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasleen ebaluazioa.-
Ebaluazioa ikastegiko Praktika Batzordeak ezarritako ebaluazio-tresnei eta tutoretza-prozesuari jarraituz egingo da. Ebaluazio- eta kalifikazio-sistema honako hau izango da:
1.Nahitaezko ikaskuntza-emaitza orokorrak: practicum kalifikatzeko, ezinbestekoa da praktiken amaieran emaitza guztiak frogatzea. Gehienez ere, puntu bat lortu ahal izango da.
2.Gainerako ikaskuntza-emaitza orokorrenatik 3 puntu lortu ahal izango dira.
3.Ibilbidearen arabera arloko ikaskuntza espezifikoen emaitzengatik 4 puntu eskuratu ahal izango dira gehienez.
4.Gogoeta kritikorako praktikengatik, gehienez ere 2 puntu eskuratu ahal izango dira.

Azken xedapena.-
Practicumetan sortzen diren gertakariei buruzko erabakiak Praktika Batzordeak hartuko ditu.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ikasturtean ohiko deialdi bakarra egongo da.

UPV/EHUko Gradu Ikasketa Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiarekin bat etorrira, ikasturte bakoitzean ikasleak deialdi bakarra izango du irakasgai hau gainditzeko.

Praktiketako Batzordeak ahalmena dauka aparteko kasuetan eta behar bezala justifikatuta practicumeko aldia zabaltzeko, betiere, ikasturteko egutegiari jarraituz. Aparteko egoera horrek ez die eragingo jadanik eginda izanda gainditzeko dauden praktikei.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ebaluazio eta autoebaluazio erreflexiboko tresnak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Praktiketako araudia
Istripuetako protokoloa
Tutoretza prozesua
<http://moodle.ehu.es/moodle/index.php>: Moodle; ikasturtea: Practicum II

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

Lotura interesgarriak.-
<https://egela.ehu.es/> Ikastaroa: Practicum II

<http://gestion.ehu.es/gaur>

<https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/practicum-erizaintzako-gradua-donostia>

OHARRAK